

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

12/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 21ekoa, baimentzen duena Martin Gartziandia Gartziandia izendatzea, Gasteizko Udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostua betetzeko

Aldundi honetan urtarrilaren 18an aurkeztutako idazki baten bidez, Gasteizko Udalak eskatu zuen Martin Gartziandia Gartziandia behin-behinean izendatzea Udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostua betetzeko, lanpostu horren titularrak erretiroa hartuko duelako.

Horren harira, adierazi behar da udal horrek iragarkia argitaratu zuela ALHAOn 2018ko abenduaren 5ean, gaikuntza nazionaleko funtzionarioek behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaizkizaten, lanpostua metaketa bidez edo zerbitzu eginkizunetan betetzeko, baina udal horrek adierazi du ez dela eskaerarik aurkeztu.

128/2018 Errege Dekretuak, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 52.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ezinezkoa denean postua aurreikusitako prozeduren bidez betetzea (behin-behineko izendapena, aldi baterako lan metaketa eta zerbitzu eginkizunak), autonomia erkidegoei eska dakieke behin-behinean izenda dezatela funtzionario bat, zeinak prestakuntza tekniko egokia eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate titulua izan beharko baitu. Nolanahi ere, 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da.

Gasteizko Udalak proposatu du korporazio horretako A1 azpitaldeko karrerako funtzionario Martin Gartziandia Gartziandiaren behin-behineko izendapena.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak egingo du izendapena, eta espedientean egiaztatuta geratu beharko da ezinezkoa izan dela lanpostua gaikuntza nazionaleko funtzionario batek betetzea.

Horiek horrela, egoki jotzen da Gasteizko Udalak egin duen izendapen proposamena onartzea.

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Martin Gartziandia Gartziandia izendatzea Gasteizko Udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostua aldi baterako bete dezan, 2019ko urtarrilaren 16tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen horrek estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bati lanpostu hori esleitu arte izango ditu ondorioak. Dena den, edozein unetan indargabetu ahal izango da bai Gasteizko Udalak hala eskatu duelako bai hura kargutik kentzeko legeko arrazoiren bat dagoelako.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 21a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ